

FUNTSEZKO SOZIETATEAK - ALIANTZAK - ELKARTEAK

Gure Berrizjolastu proiektua aurrera ateratzeko, oso garrantzitsua da beste enpresa eta erakunde batzuekin elkarlanean aritzea. Gu bakarrrik ezingo genuke dena egin, eta horregatik behar ditugu aliatu batzuk gurekin. Aliantza hauek lagunduko digute jostailuak biltzen, garraiatzen, garbitzen eta berriro erabiltzeko prestatzen.

Lehen aliatu nagusia Juguettos izango da. Haiekin akordio bat egingo dugu, eta euren dendetan jostailuak uzteko kutxak jarriko ditugu. Horri esker, familiek erraz entregatu ahal izango dituzte erabiltzen ez dituzten jostailuak. Gainera, Juguettos bezalako marka ezaguna izateak konfiantza ematen die gurasoei; badakite lekua segurua dela eta jostailuak leku on batera joango direla. Bestalde, jostailuak uzten dituzten pertsonen sariak jasoko dituzte: deskontuak, puntuak edo beste abantaila batzuk. Horrek laguntzen du jendea animatzen eta parte hartzen.

Bigarrenik, garraio enpresak beharko ditugu. Haiek arduratuko dira Juguettos dendetan bildutako jostailuak gure biltegira edo tailerrera eramateaz. Jostailu asko biltzen baditugu, ezinbestekoa izango da garraio ona izatea. Enpresa hauek gure proiektuaren funtzionamenduan pieza oso garrantzitsua dira, zeren eta mugikortasunik gabe ezin dugu ezer berrerabili.

Horrez gain, garbiketa eta desinfekzio zerbitzuak ere behar ditugu. Jostailuak jaso ondoren, ezin ditugu zuzenean saldu edo eman. Lehenik, garbitu, desinfektatu eta egoera onean daudela ziurtatu behar dugu. Hori oso garrantzitsua da, batez ere ume txikiek erabiliko dituztelako. Zerbitzu hauek bermatzen dute jostailuak berriro erabiltzeko seguruak direla.

Bestalde, gure proiektua soziala denez, komeni da udala, gizarte-zerbitzuak eta ingurumen elkarteak ere gure aliatu izatea. Haiek lagundu diezagukete proiektua zabaltzen, herrian ezagutarazten eta jende gehiagorengana iristen. Gainera, askotan udal programetan sartzen badira, erraztasun gehiago izaten dira instalazioak, baimenak edo laguntzak lortzeko.

Horiez gain, bigarren eskuko dendak ongintzako elkarteak edo familia behartsuei laguntzen dieten erakundeak ere gurekin lankidetzan ibiliko lirateke. Egoera oso onean dauden jostailuak denda hauetara bidali ditzakegu saldu edo dohaintzan emateko. Horrela, ume gehiagok izango dute jostailu duin bat izateko aukera, eta horrek gizartean eragin positiboa izango du.

Azkenik, etorkizunean baliteke birziklapen enpresekin ere hitzarmenak egitea. Hondatuta dauden jostailuen materialak berrerabili ahal izango lirateke, plastikoa eta bestelako materialak aprobetxatuz. Honek asko lagunduko luke kutsadura gutxitzeko.

Laburbilduz, gure aliantzak oso garrantzitsuak dira:

- Juguettos bilketa puntuak jartzeko behar dugu.
- Garraio enpresak jostailuak mugitzeko.
- Garbiketa zerbitzuak jostailuak prest uzteko,.
- Udalak laguntza soziala emateko.
- Bigarren eskuko dendak berrerabilpena lortzeko.